





1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	15.792 biztanle
Zabalera:	254,85 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Beriain, Biurrun-Olkotz (bakarrik Biurrun), Noain (bakarrik Elortzibar), Galar, Ibargoiti, Elo, Oloritz (Mendibil eta Soltxaga salbu), Tebas-Muru Artederreta, Untzue

artean dago, emakumezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (85,2 urte). Haurren obesitatearen prebalentziak bat egiten du Nafarroako batez bestekoarekin (%4,3).

Nafarroa2000 zonifikazioan Noaingo eskualde oinarritzkoa, nagusiki, Iruñeko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.

2. Komunitatea eta osasuna

35 urtetik 50era bitarteko aita-amek eta 15 urtetik beheitiko seme-alabek osatua dago, nagusiki, Noaingo eskualde oinarritzko biztanleriaren piramideak itxuratzen duen eremua. Noaingo eskualde oinarritzkoa da jaiotza tasa handiena (%13,3), zahartzarako mendekotasun indize txikiena (%18,0) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen portzentaje txikiena (%29,1) dituztenetarik.

Noaingo eskualde oinarritzkoa emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen %25en artean artean dago, urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajea dagokionez (%78,2). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen %25en artean


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bikt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bikt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errola; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduiko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batera egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi ordutik); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 13,8 eta gizonezkoak 6,3); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 6,0); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.